



DOINUELE
Euskarazko plazen sarea

1) (Kontalaria. GEURE GELATIK):

Bazen behin... altxor bat, altxor kutxa handi! bat, Kantauri itsaso hondoan. Dantzan jartzen zituen inguratzen ziren guztiak, dantzan eta ametsetan, zoriontsu, pozik. Inbidia partitu zenean han ginen euskaldunak eta itsaso hondoan ez, baizik eta herrietako plazetan nahi genuen kutxa hura, zoriontsu egingo gintuen kutxa magikoa. Arrainek, ordea, itsas hondoan eutsi nahi zioten, ez zuten galdu nahi. Buruhauste askoren ondoren, guztientzat balio izan zezan, tratua egin zuten: Kantauri itsaso hondoan izango zuen ohiko bizitoki kutxak, baina... aldizka itsasotik plazara eramango zuten. Halaxe, bada, konpondu zuten arazoa, Doinueleren laguntzarekin:

2) HILBELTZA:

DOINUELE, doinua eta elea, musika eta liburua, euskal kultura; hango eta hemengo, saretuta, harrapatuta, elkartuta. 2023ko urtarrilean sortua.

3) LITERATURIA:

Nazio mailako sarea da gurea: urtarrilean hasi eta abendura, urte guztian zehar, eskaintza EHko zortzi txokotan. Sareak harrapatu gaitu Baztan, Azkoitia, Zarautz, Ziburu, Hernani, Sara, Galdakao eta Lazkao. Euskara hutsezko, izaera anitzeko zortzi plaza aberats Euskal Herrian urte osoan. Sarean harrapatu ditugu euskal doinua eta elea.

4) ZIBURU:

Urtebete bada sortu ginela, saretu ginela; urtebeteko esperientzia badugu, beraz. Eta 2023ko azoketan zer gertatu zen esateko moduan gara: elkarrekin ikasi egin dugu, elkarri lagundu egin diogu eta gutako bakoitza indarra hartuta, osasuntsuago gatoz aurtan. 2023ko elkarlanaren balorazio onak indar emanda, gustura ekin diogu Doinueleren bigarren urteari.

5) HERNANI:

Hau da aurtengo euskarazko azoka eta plazen egutegia:

- (H)ilbeltza urtarrilaren 22tik 28ra, Baztanen. Nobela beltzari buruzko ekitaldiak.
- Geure Gelatik apirilaren 12tik 14ra, Azkoitia. Emakumeek idatzitako liburuen azoka eta ekitaldiak.
- Literaturia maiatzaren 24tik 26ra, Zarautz. Literatura azoka eta ekitaldiak.
- Ziburuko azoka ekainaren 1ean. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.
- Hernaniko azoka urriaren 5ean. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.
- Ikusi Mikusi urriaren 11n eta 12an, Saran. Haur eta gazte literatura eta ekitaldiak.
- Sormene, urriaren 30ean, Galdakaon. Literatura azoka.
- Lazkaoko azoka abenduaren 13tik 15era. Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak.

6) IKUSI MIKUSI:

Sarea dugu protagonista, baina ez sare pelagikoa, euskararen erreserba zainduz, etorkizuna babesten duen sare tradizionala baizik: haundi eta txiki, zahar eta berri, denok daukagu lekua Doinuele plazan; behin sartzen den antolatzailea nahiz bezeroa, ez da irteten esku hutsik. Buruz, gorputzez, sentimenduz jantzita irteten da bertatik. Esan beharra dago, sareek ez dietela azoketan sartzen uzten marrazo eta harrapariei eta sarea erabat estua dela erderentzat. Beraz, euskara da Doinuele plazetako hizkuntza bakarra, gurea.

7) SORMENE:

Sarea, baina, ez da hertsia adiskideentzat: baliteke guk ezagutzen ez dugun beste antolatzailerik izatea han hemen, eta beraz, deia luzatzen diegu gurekin harremanetan sar daitezen eta DOINUELEra elkar daitezen: euskara hutsezko plazen sarea gara eta ongi etorriak zarete, bidea elkarrekin eginez, euskarazko azoken territoria zabalduz joan gaitzen.

8) LAZKAO:

Hala bazan, ez bazan, Kantauri itsasoko urak hotzak daude eta sar gaitzen Baztan, Azkoitia, Zarautz, Ziburu, Hernani, Sara, Lazkao eta Galdakaoko plazetan!!! Beso-zabalik hartuko zaituztegu.